

Nork irakatsi eta lagunduko dit proiektu hau garatzen?

UPV/EHUko **Plentziako Itsas Estazioko (PiE-UPV/EHU)** ikertzaile-talde aditu batek prestatuko ditu interesa duten taldeen arduradunak eta aholkatu egingo die proiektuaren garapenean zehar.



Nori zuzenduta dago proiektua?

Parte hartu dezaketen taldeak **hezkuntza arautuko (ikastetxeak)** zein **hezkuntza ez-arautukoak** izan daitezke, tartean, aisialdiko taldeak edo/eta mota guztietako pertsonak biltzen dituen beste edozein talde. Taldearen arduradunak(ek) prestakuntza saioan parte hartzea baino ez da behar!

Galdetu iezaguzu nola!

atencion.nomeaplastes@gmail.com

<https://www.ehu.eus/PIE/ez-nazazu-zapaldu/>



@atencionnomeaplastes



@EzNazazuZapaldu



Prozedura zientifikoak aplikatuz, **mikroskopia** mailako gure kostaldeko **biodibersitatea** eta **kutsatzaileak** ezagutzeko interesa duten taldeen prestaketa.

Eman izena jarduera honetan zure taldea gidatzeko!



Proiektuan izena ematea

2022ko azaroak 15 eta abenduak 15 bitartean, proiektuan **izena emateko** epea irekiko da: **talde** bakoitzak partaideen ezaugarriak eta formazioa jasoko duen **arduraduna** nor izango den zehaztuko du.

Formazioa

PiE-UPV/EHU ikertzaileok **herritarren zientzian oinarritutako STEAM proiektu** honetaz arduratuko diren pertsonak **prestatuko ditugu**.

Formazioa irakasle edo/eta talde ezberdinen arduradunei zuzenduta dago eta **prozedura zientifikoan** oinarrituz, laginketa modu autonomoan egiteko azalpena eskainiko duen **ikastaro teoriko-praktiko baten bidez** burutuko da (3 h otsaila-martxoan)

eta nola egingo dugu?

Zuon laginketen prestaketa

PiE-UPV/EHUko ikertzaileok **materiala** entregatuko dizuegu laginketa egiteko prestatutako irakasle/arduradunei. Laginketarako **materiala sailkatu** eta **erabili beharreko tresnak prestatu** egin beharko dira. Azalpenak eta informazio guztia sarean egongo dira eskuragarri. Gainera, **laginketa sasoian zehar, PiE-UPV/EHUko ikertzaileekin harremana etengabea izango da** edozein zalantzaren aurrean, **laguntza eskaintzeko**.

Zuon laginketa hondartzan

Taldeek laginduko duten **hondartza aukeratuko dute** eta **eta laginketa puntuaren deskribapen zehatza egingo dute kontuan hartu beharreko ezaugarriak eta datuak bilduz** (GPS kokapena, laginketa eguna, ordua, giro temperatura, uretako temperatura, haizearen indarra, marea...). Azkenik, PiE-UPV/EHUko ikertzaileek zehaztutako protokoloaren arabera **laginketa egingo da** eta **organismoen zein plastikoen presentziaren inguruko datuak jasoko dira**.



Datu-baseen eraketa

Bildutako datuak eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko antolatuko dira. Eskuratutako informazioa, kostaldeari buruzko ezagutza zabaltzea ahalbidetuko duten **datu-baseak** osatzeko erabiliko da. Horretarako, proiektuaren **web** gunea eta **"AplastApp"**, plastikoak zenbatzeko sortutako aplikazioa, erabiliko dira. Horrela, modu berritzailean, **herritarren Zientzia** bidezko ezagutza sortzea ahalbidetuko da.

Ezagutzaren azoka: Ozeanoen eguna

Emaitzak 2023ko ekainaren 8an, **Ozeanoen Nazioarteko egunean** burutuko den eta parte hartzaile denak bilduko dituen **ekitaldi zabal batean aurkeztuko** dira.

